

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Hondakin plastikoen murrizketa, Nafarroako Gobernuak Ingurumenaren Munduko Egunean antolatutako ospakizunaren ardatz

*Jarduera programa zabala eskainiko da Ingurumen Departamentuak bultzatutako aste tematikoaren barnean*

Astelehena, 2018.eko ekainak 4

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentak bat egin du asteartean, ekainak 5, Nazio Batuen Erakundeak ospatuko duen Ingurumenaren Munduko Egunarekin, plastikoei eragindako kutsaduraren aurkako borrokan parte hartzeko mezuari jarraiki.

Arazo larri honen aurkako borroka babestuz, egunotan, Europako Batzardeak material horiek debekatzea erabaki du, alternatiba iraunkorra duten eguneroko objektuen kasuan. Helburu honen ildo bertsuan, urtarrilean abiarazitako estrategiaren arabera, 2030etik aurrera, plastikozko produktu guztiek berrerabiltzeko edo birziklatzeko diseinatuta egon beharko dute, eta 2021etik aurrera poltsa arinak debekatuta egonen dira, material konpostagarriaz eginda ez baldin badaude.

Nafarroan, aste honetan bertan, foru Parlamentuak Hondakinei eta hauen Fiskalitateari buruzko Foru Legearen behin-betiko onarpena bozkatuko du, plastikoen nahiz bestelako hondakinen prebentziorako eta murrizketarako aurrerapauso garrantzitsua emanez. Lege berriaren fiskalitatearen nahiz material guztien erregulazioaren arloan ezarritako neurriek Foru Komunitatearen datozen urteotarako hondakinen prebentzio eta kudeaketari buruzko politika markatuko dute, Nafarroako 2017-2027ko Hondakinen Planak jasotakoaren harira.

### Baztan Bidasoako ibai-bazterrak garbitzea

Bestalde, Baztan Bidasoa, Urumea eta Leitzarain ibaietan, [LIFE IREKIBAI proiektuak](#) egun honetako ospakizunekin bat egin du boluntarioen bitartez, ibai-bazterretan dauden hondakinak (hondakin plastikoa barne) garbitzeko.

Lanak larunbatean hasi ziren, ekainak 2, eta egun osoan, adin guztietako boluntarioez osatutako lau taldek Elizondo, Lekaroz, Amaiur eta Narteko ibai-bazterrak miatu zituzten. Gaurtik aurrera, aste osoan, jarduerak jarraipena izanen du Donezteben eta Oronozen, betiere eguraldiaren egoeraren arabera.

Ingurumen arloko boluntariotza jardueraren bitartez, Life Irekibai proiektuak (Ibai irekiak: Nafarroak eta Gipuzkoak partekatutako ibaietako konektibitatea eta habitata hobetuz) herritarren partaidetza aktiboa sustatu nahi du ibaietako ekosistemak zaindu eta hobetzeko, eta aldi berean, informazioa eta sentsibilizazioa zabaltzeko nahi du herritarren artean

ibaiari eta inguruneari buruzko ezagutza hobetuz. Antolatzaileek eskularruak, poltsak eta bestelako materialak emanen dizkie izena emanda dauden pertsoneri, aseguruua egiteaz gain, eta arropa egokia, botak eta anoraka eramateko gomendioa luzatu die, euria egiten baldin badu.

Boluntarioen arteko auzolanak Baztan, Goizueta eta Doneztebeko udalekin, Baztango ehiztari eta arrantzaleen kirol klubekin, "Nazas del Bidasoa" arrantzale klubarekin, Tantarumairu Ikastolarekin eta Mendaur Institutuarekin batera antolatu dira.

### **Ginkana Bertizen**

Bertizko Jaurerriko Parke Naturalean, jauregiko lorategia eta basoa hondakinei buruzko hausnarketa eta ikasketa lantzeko jarduera baten agertoki bihurtuko dira bihar, asteartea, ekainak 5. Zehazkiago esanda, Baztan Bidasoako ikasleek ginkana bat egingen dute, Bertizen bizi den okil batek plastikoaren ondorioz jasandako intoxikazioa ikertzeko.

### **Urbasa**

Urbasako Parke Naturalean, Ingurumenaren Munduko Eguna egingo da ekainaren 9an, larunbata, 10:00etatik 14:00etara bitartean.

Kanpinean elkartu eta hondakin plastikoei buruzko dibulgazio-jarduerarekin hasiera emango da; bertan, Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak, Eva García Balaguerrek, eta Hondakinen Ataleko teknikariek parte hartuko dute. Halaber, Urbasako balio eta erabilera ezberdinak ezagutzeko asmoarekin, jardueraren barnean, araztegia eta informazio-zentroa bisitatuko dira, eta, ondoren, egokitutako bidexkan ibilaldi bat egin eta 13:00ean hamaiketako izango da. Hori guztia Basozaingoko langileen eta parkeko langileen laguntza eta azalpenekin. Jarduera familientzat da; inskripzioak egiteko, idatzi [eduamb@navarra.es](mailto:eduamb@navarra.es) posta elektronikora.

### **Jarduera osagarriak**

Espazio naturalak eta ibaiak garbitzeaz eta parke naturaletan joko hezigarriak egiteaz gain, Departamentuak beste jarduera batzuetan parte hartzeko gonbita luzatzen du:

**Ekainak 4, Erronkari:** "Nafarroako Pirinioetako tximeletak" argazki-erakusketaren inaugurazioa.

Iosu Anton natura-argazkilariak, tximeleten argazkietan adituak, Nafarroako Pirinioetako tximeletei buruzko irudi-bilduma aurkeztuko du. Erakusketa Erronkariko NIZen instalazioetan bisitatu ahal izango da ekainaren 4tik uztailaren 4ra bitartean, ekipamenduaren ohiko ordutegietan.

### **Ekainak 5, Erronkari**

Naturari buruzko tailerra egingo da Julian Gaiarre BHIko ikasleentzat Belaguako haranean; hau da, mendiko habitataren faunarik bereizgarriena ezagutzeko aztarnei eta arrastoei buruzko jarduera, 10:00ak eta 13:00 artean.

Halaber, Erronkariko NIZen, 19:00etan, Fernando Etxarri biologoaren eta Ingurumen Hezkuntzako doktorearen "Euskal mitologia y educación ambiental" liburua aurkeztuko da. Euskal mitologiaren eta ingurumen-hezkuntzaren arteko harremana aurkeztuko du, bien edukiei eta helburuei balioa emate aldera.

### **Ekainak 6, irteera gidatua Saraguetako galtzada erromatarrean**

Aranzadiko Juan Mari Martínez Txoperenak lagunduta, Galtzada Erromatarra bisitatuko da Saraguetatik Aurizperrira.

### **Ekainak 7**

19:00etan, Erronkariko NIZen, Salazar ibaiaren egoera ekologikoa aztertuko du José Ardaizek, Nafarroako Gobernuko Ibaiak Leheneratzeko eta Arrantza Kudeatzeko Atalekoak. Iragazkortzeko lanei eta Salazar ibaian arrain-hazkuntzako espeziak ezagutzeari eta horiek hobetzeari buruz arituko da.

### **Ekainak 8, Otxagabia**

Egurra kableen bitartez garraiatzeari buruzko jarduera Zaraitzun, ikastetxe publikoko ikasleentzat.

### **Ekainak 9, Pitillasko aintzira**

Hezegunerako bisita gidatua egingo da 19:00etan hasita, bertako biodibertsitatea ezagutzeko.

### **Ekainak 10, Irunberri, geologia irteera**

Helburua da Irunberri-Aoizko arroko eta Arroilako balio geologikoak partikulatan ezagutzera ematea. Bisita mandotegiko begiratokian hasiko da (Acciona aurrean), 10:00etan; hortik arroaren eta Leireko mendilerroaren ikuspegia ikusten da. Ondoren, Irunberriko Arroilara joango dira, Irati trenbidearen ibilbide zaharretik barrena, espazioa behatzeko eta espazioaren interpretazio geologikorako geraldak ezberdinak eginaz. Izena aurrez eman behar da.

### **Ekainak 14: Irunberriko Arraileko sekretu naturalak**

Zonako sektore turistikoko profesionalen bereziki zuzendutako bisita gidatua da (baina nahi duenarentzat ere irekita egongo da). Helburua da ingurune erakargarri naturalen etariko bat ezagutzera ematea, ondoren, ezagutza hori joan daitezkeen bisitariei transmititu ahal izatearren, informazio-bulegoetan nahiz landa-etxeetan. Bisita arratsaldean egingo da, 16:00etan, arroileko aparkalekuan. Aldez aurretik izena eman behar da.

### **Ekainak 16**

Leringo pinudietara bisita, Aleppo pinuaren bertako basoa ezagutzeko; hots Lizarrako lurraldean bakarra, dituen ezaugarriengatik. Lizarra Hegoaldeko Basozaingoaren eskutik, 10:00etan hasita, 6 km-ko luzerako eta 3 orduko iraupeneko interpretazio-ibilbidea egingo da, eta, bertan, paisaiari buruzko alderdi ezberdinak jorratuko dira, zonako ingurumen-balio nagusiak ezagutzeko helburuarekin; hala nola, hegazti harrapariak, igeltsu-lurretako flora, suteen aurkako baso-kudeaketa, lurraldearen erabilerak eta aprobeixamenduak, e.a.

Orobat, egun berean, Pitillasko Aintzira berriz bisitatu ahal izango da, baita ere 19:00etan.

Azkenik, Irunberriko NIZen eta ekainaren 30era bitarte, Errege Bardeako geologiari buruzko erakusketa ikus ahal izango da. Dibulgaziozko erakusketa hau geologiako eta Bardeako Komunitateko alderdi ezberdinei buruzko azalpen-panelek osatzen dute, eta bi erakustoki ditu, han aurkitutako fosil adierazgarrien erreplikekin.